

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Azpeitia

Hondakinetatik
baliabideetara

Bigarren Hezkuntza (Lehenengo Zikloa)

ARLO/IKASGAIA: Natur zientziak.

LOTUTAKO ARLO/IKASGAIAK: Balio zibiko eta etikoaren heziketa.

Kontsumitzen ditugun produktu guztiek jatorri bat, ekoizpen-prozesu bat eta bizi-ziklo bat dute. Ikas esperientzia honetan, ikasleek materialen bizi-zikloa eta 7R estrategiak aztertuko dituzte, kontsumo arduratsuaren garrantzia ulertzeko. Aldi berean, uraren energia aprobetxatzen duen errota baten funtzionamendua ezagutuko dute, natur baliabideen erabilera jasangarriaren adibide gisa.

Bi gaiak lotuz, ikasleek hausnartuko dute baliabideen erabilerak eta gure kontsumo-ohiturek ingurumenean duten eraginaz.

Nola erabil ditzakegu baliabideak modu arduratsuan etorkizun jasangarriagoa eraikitzeko?